



OÑATI
dabilen herria



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

INFORMATIKA LAGUNTZAILEA (C1) ALDI BATERAKO KONTRATATZEA (2026ABFI0016)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

“Udaleko GIZA BALIABIDE ETA ANTOLAKETA teknikaria naizen honek honako txostena eman dut:

Espediente zk.: 2026ABFI0016

Interesduna: ARREGUI GOÑI JOSEBA

Gaia: Informatika laguntzailea (C1) aldi baterako izendatzea

ARREGUI GOÑI JOSEBA jaunak/andreak hasitako prozedura aztertu da.

Gertakariak:

Lehenengoa.- Oñatiko Udaleko Informatika Laguntzaile (C1) lanpostua hutsik dago, lanpostu horretako praktiketako funtzionario izendatuko den langilea ezintasun egoeran aurkitzen baita. Arrazoi horregatik, eta Oñatiko Udalean aldi baterako lan poltsak eta kontratazioak kudeatzeko funtzionamendua arautzen duen 2023ko abuztuaren 11ko (GAO 155 zk.) ordenantza jarraiki, lehenik eta behin Udaleko eta inguruko administrazioetako lan-poltsetara jo zen. Bertatik ez zen inolako hautagairik aurkeztu, eta ondorioz, Lanbiden egin zen aipatutako lanpostua behin behinekoz betetzeko deialdia.

Bigarrena.- Era horretan, 2026ko ekainaren 22ko 1236 Alkate Dekretu bitartez deialdi horretako behin behineko zerrendak argitaratu ziren. Inolako erreklamazio edota alegaziorik egon ez zenez, zerrenda hori behin betikotzat hartu eta hurrenkera jarraituta kontratazio proposamena egin da.

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.- Behin betiko zerrendako hurrenkera jarraituta, Joseba Arregui Goñi jaunak adierazi du lanpostua behin behinekoz betetzeko prestasuna.

Proposamena:

Lehenengoa.- Joseba Arregui Goñi jauna (**4470**) jauna izendatzea Oñatiko Udaleko aldi bateko Informatika Laguntzaile (C1) gisa, ezintasun egoeran aurkitzen den langileak lanpostuaren jabetza hartu artean.

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunari eta Informatika Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.”





Horregatik guztiagatik, teknikariaren balorazioa eta proposamena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizen honek, erabakitzen dut:

Lehenengoa.- Joseba Arregui Goñi jauna (**4470**) jauna izendatzea Oñatiko Udaleko aldi bateko Informatika Laguntzaile (C1) gisa, ezintasun egoeran aurkitzen den langileak lanpostuaren jabetza hartu artean.

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunari eta Informatika Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2026ko uztailaren 3an


OÑATIKO UDALA
Alkatea
Izaro Elorza Arregui